Garrezurra modu holako apaindua, iniziatuaren zangoen artean edo izterrondoen artean kokatzen da behin eta berriro begiratzeko (2 edo 3 egunetan zehar). Nahiz eta tribu gerrazale bezala beldurra eman, beren ohituretariko batzuek beren noblezia adierazten dute, ahaidearen erritoei dagokienez batez ere. Helduen adopzioa, "Tasor juwi" errituala urtetan zehar eboluzionatu du inguruko herrixken arteko tentsioak eztitzeko.

## "Yeu"- a

Asmat herriaren eraikinik garrantzitsuena Yeu-a da. Badaude batzuk, guztiek errekaren aurrean. Baina Yeu-a handiena da, ezkonduen eta ezkongabeen etxea da, non lehenengoek ia-ia denbora osoa ematen baitute. Yeu nagusian zeremonia, jai eta dantza guztiak ospatzen dira eta maskarak eta danborrak gordetzen dira. Beste etxeak errekatik urrun daude eta beti ez daude errekarantz begiratuz., Yeutik une guztietan gizonak nor hurbiltzen

# ASMATAK

den herriara ikus daitezke, eta kanpoko eraso bat egitekotan haiek babes dezakete. Beste aldetik ikus dezakete emakumeek arrantza egiten baduten edo hitz egiten denbora galtzen duten.

Yeu-n bi etxe dago, bata errekako goiko uretan, eta beste beheko uretan, gainera beste bar erdian, komunitate guztiena dela. Emakumeek esparru honetan bakarrik parada berezietan sar daitezke edo etxe zeremoniatsu berri bat inauguratzean.

Lau edo bost urtero Yeu berri bat estreinatzen da, izan ere egurrezko armazoiak klima tropikalari gehiago ezin dio eusten. Eraikuntza bukatu ondoren, gizon guztiak, danborra jotzen dutenak izan ezik, alde egiten dute eta emakumeek, hantxe, egun osoa dantzatzen dute. Errenkadan kokaturik goiko uretarantz joan, etxearen aurreko aldetik pasatuz, eta itxultzerakoan, beheko uretarantz, etxeko fatxadaren aurrean danza eginez. Dantzarien erdigunean zuhaitzaren azalezko zilindroaren antzeko bat (2 metroko luzera eta 60 cm diametroa) jartzen da.

Dantzatu ondoren, emakumeak lekua uzten dute eta gizonak, handitasunez, etxeratzen dira, egitura zilindriko horretan, zelaian aurki ditzaketen labezomorroen eta kakalardoen larba guztiak









utziz. Yeu komunitatea oso harro egongo da ontzia larbaz beteta uztekotan, gero larba horiek hosto handi batean gainean utziko dituzte, hosto hori horretarako prestatua egon da. Zeremonia osoa emakumezkoaren emankortasunaren ikurra da.

Yeu etxea mutilentzarako ikastolatzat hartzen dute, hantxe bere herriko ohiturak ikasten dituzte. Ehiztari eta gerlari ospetsuek beren balentriak kontatzen dituzte eta dauzkaten garezurrak zenbatu ohi dituzte. Arbasoen garezurrak, begiruneaeren eta benerazioaren objetuak, beti garbi daude, eta burukotzat erabiltzen dira, honela, Asmatak desagertutako ahaidearen balendria oinordetzan hartuko du.

### Ezkontza eta familia

Gerra-ekintzak erlijioarekin oso loturik egon arren, ezkontza eta jaiotasuna ekintza zeharo laikoak dira. Geroko-ama, emakume zaharrengatik lagunduta, bere etxean erditzen da. Bitartean, aitak bere lagunenkiko tratua axolagabetasun heroi-

# ASMATAK

koz uzten du.
Gurazoek, familia bakoitzaren abagune ekonomikoak aintzakotzat hartuz, ezkontzak prestatzen dituzte.
Emaztegaiaren amak, tristura planta eginez, bere galtzapena deitoratu ohi du, eta senargaia, bere askatasunaren jeloskorra, ihesaren planta egiten du baina azkenean hartuta da. Emazgaia, nahigabetua, kuskusezko lumez eta larruz apaindurik bere osabaren sorbalden gainean etortzen da. Neskaren lagunek arduratsu-itxurak egiten dituzte, eta jezarritak, zango gurutzaturik edukiz, neskaren osabari neskaren izena isilka-misilka esaten diote. Osabaren botoek, geroko senar-emaztearentzat zoriontasuna emateko, zeremoniako koadroa betetzen dute.
Asmatek aitzitik, heriotzaren aurrean izugarrizko zorigaitza kanporatzen dute. Gizon bat hiltzen denean, bere emazteak, etxearen aurrean, lohian, bihurkatzen dira, alde batetik estuasunaren errito-adierazpen bezala, eta beste aldetik, hildakoaren izpirituak beren aztarnak ez aurkitzeko.Gizonak gorpua bizkarrean eramanez, etxeratik ateratzen dira; gorpua banbuzko zerriekin estaltzen dute. Gero errekako beste ertzera batera eramaten dute lurperatzeko.
Asmatak, itsasertzaren ondoan, gutxi mugatua, bizi dira; agertzen diren kos-









talde ziringatsuak marea jaisten denean, zehazki ezin da jakin itsasoaren lerroa non itsasoa hondartza bihurtzen baita. Goiko marean urak padurak bete ditu, baita Asmaten etxeetako makilak ere. Beren herriak, itsasoaren albotik ia-ia lortezinak eta beste aldetik mendietatik babesturik, kanpotar erasoz erlatiboki aske daude.
Beren kultura osoa eta industria, inguratzen zaien baso handietako eguraren menpean daude. Egurra, oinarriaren materiala da beren etxeak, kanoak eta ehizarako armak egiteko, gainera sua egiteko erragaia da. Bere elikadura, *“sagu”*delakoaren fekulan, eta arrantzan (beheko mareetan hartuta) datza. Gizonek muskerrak, basurdeak, eta kasuarioak (ostrukaren antzekoak dira baina txikiagoak) ehizatzen dituzte. Asmatentzat, gizona eta zuhaitza sinbolikoki berdinak dira. Sustraiak bere oinak dira, enborra bere gorputza, adarrak bere besoak eta fruitua burua da. Honengandik ondorioztatzen da, fruituak jaten dituen animalia guztiak beren herriaren ikurra dira.
Aspaldian, inbasio bat egiteko prestatzen

# ASMATAK

zirenean, Asmat gerlariek, kalaozko, azeri-hegalarizko eta kakatuazko apaindurak erabiltzen zituzten. Marisorginak esangura berezia ere du. Koito egiten duten bitartean, emeak arraren burua jaten du, modu honetan Asmatek buruak ehizatzeko ohitura justifikatzen dute.

*"Sagu"*delakoaren arbola, bizitzaren emailea, emakumearen ikurra da. Honela, arbolaren erditik "sagu"delakoa ateratzen da eta emakumeengandik umea ateratzen da. Zeremonia garrantzitsu bat ospatzen den bakoitzean identitate hau areagotzen da, adibidez "arbola-ama"ren jaia. Izugarrizko "Sagu"delakoaren arbola aukeratzen da, posible izatekotan, bere bizitzaren osotasunean dagoela. Beherago dauden adarrak enborratik ateratzen dira, eta emakumearen gonako hostoekin janzten dute. Gizaki banak gizonezko eta emakumezko elementuak dituenez, emakumearen gona gizoneko ikurrekin apaintzen da. Arbola jantzi ondoren *"Zuhaitz-ama"* izango da.

Zuhaitz hauen mozketaren erritoak, erasoaldi batean, modu batzuetan gizonaren heriotza gogoratzen du. Yeu komunitearen gerlaririk nagusienak, non arbola baitago, jaira gonbidatuak izan dira, gizakien ehizan gertatu zitzaizkien balendriak kontatzera.

Buruen-ehiza prestatzen duten gerlariek halako istorioak ere kontatzen dituzte (dewen). Zeremonia magikoa da aldez aurretik etsaia ikaratzeko.

Dewen ondoren Komunitatearen kiderik nagusienei gonbidatzen diete arbolaren oinean aizkora baten bidez mozketa batzuk egiteko. Jabeek, *"sagu"*delakoa hazten den familiako zelula, mozten bukatu ohi dute. Arbola mozteagatik, familiako talde hori jaiaren laguntzaile bihurtzen da.









Arbola lurrera erortzen den bezain laster etsai presoa izango balitz bezala erasotzen dute. Gero garbitzen eta azala kentzen diote, hosto handiak ere kentzen dizkiote, dena den adaburuaren hostoak kontserbatzen dituzte erretiluaren antzeko bat egiteko. Adaburuaren kukulua (zurtoin zuri batzuk dituela) aurkitu duten hostoaren gainean jartzen da eta herrira eramateko eta jateko. Gero laguntzaileek enborraren gainean Yeu etxearen kopia txiki bat zizelatzen dute. Hurrengo 6 asteetan, eroritako arbolaren enborran kakalardo Capricornus-en larbak inkubatzen dira, "*zuhaitz-ama*"-tik aukeratutako hostoa hartzen da eta beste erretilu bat egiten da, eta tolestatzen da ontzi angeluzuzen lortu arte (An-a). 6 aste pasatu ondoren arbolaren erasoa errepikatzen da. Oihukatuz enborra luzeka mozten dute, barruko larbak argi eta garbi utziz. Algara handiz Yeu-ra eramaten dute, gerlari hildako bat izango balitz bezala, eta An-an uzten dute. Asmat-aren kulturan An-a sexu-ikurra da eta bagina errepresentatzen du. Berriro arbolak emakumea aipatzen du eta barruan eramaten dituen larbek esperma aipatzen dute.

# TASADAY HERRIA

***Filipinetako oihan tropikaletako ezkutuagoan, Lurrako herri primitiboenetariko bat bizi da: Tasaday Herria. 1971 urtean aurkitua izan zen. Hasieran, bere kideak Harri-Aroan bezala bizi zirela pentsatzen zen., ehizaz eta biltzez elikatuz, eta kobetan bizi eginez. Dena den, geroko ikerketek frogatu zuten, benetan nekazari-talde batetik banatu egin zirela eta euri-basoetan sartu zirela nekazaritza bertan behera utziz eta bizitza erdi-nomada eta biltzailea hartuz.***

Talde bat indigena eta gutxienena dira. 100 pertsonen bat osaturik. Ehizaz eta biltzez bizi dira. Mindanao-ko Hegoaldean, Hegoaldeko Korobato-ko probintziako mendietako kobetan (1200 metroko altuera itsas-mailaren gainetik).

Bere hizkuntzaren analisi linguistikoak (Manobo hizkuntzaren antzeko dialektoa) adierazten du, orain dela gutxi





MEHATXATUTAKO HERRIAK



(XIX mendean gutxi gora-behera), Korobato-ko probintziatik, Manobo nekazaritza-taldetik banatu zirela, eta euri-basoetara sartu zirela orain bizi diren gertu lekura arte. Nekazaritza utziz, eta bizitza erdi-nomada eta biltzailea hartuz.



# TASADAY HERRIA

Litekeena da, Blit herrixkarekin harremanak edukitzea: bai komertzialak bai beste mota bat. Garai hartan herriska hori Hegomendebalderantz egoten zen, eta bakarrik hiru ordu behar zuten hara joateko.
Oso gutxi jakiten da beren ohiturei eta bizimoduari buruz. Haientzat nekazaritza ez da beharrezkoa, ez dute ezer lantzen, ez dute egiten zeramikarik, ezta ehunarik,edo metalezko lanik ere. Ez dute egiten etxerik, izan ere koba-





zuloetan bizi dira. Gurasoek izugarrizko harremanak seme-alabekin dituzte, azkarki fruituak bilatzen eta animaliak ehiztatzen irakasten diete.
Antropologoek, ehiztatzen dituzten animaliekin truke egiten dituztela, aurkitu dute eta sarritan haiek beraiek ketu ohi dituztela. (hurbil dauden herrixka populatuetan).
Beren elikadura haragijalea, basoko fruituekin eta landareekin osa-







tzen da.
Douglas Yen etnobotanikoak, 80 ko hamarkadan herri autoktono hau eta gutxienena ikasi zuen, zalantzan jarri zuen bere dieta osasuntsua izango zela, eta epe motzean ikerketa berrien behartasuna iradoki zuela, baina orain arte ez inork ez du egin.
Tasaday Herria Munduko herri autoktono eta gutxienenarik ezezagunetariko bat da. Bere lurrak eta eskubideak babestu behar da.

# KALINGAK

***Luzon-go goiko lurraldeetan, Filipinetako Irlarik Iparraldekoena, oraindik beren idetitate etnikoa kontserbatzen duten tribu batzuk bizi dira. Haien artean Kalinga herria nabarmendu ohi da, herri honek bere ohiko bizimodua gorde egin du, segurki bere gerlarien basatasunagatik izango da.***

Duela hamarkada batzuk arte, oso bitxia zen beheko lurraldeetako biztanleak edo inguruko tribuak Kalingen lurraldera joatea. Haietariko batzuek herrixken arteko liskar periodikoetan parte hartzen zituzten. Eta gizakien buruak mozteko ospea izaten jarraitzen zuten.

Kalingen habitata muino altuetan, mendi-mazela aldapatsuetan, eta arroil sakonetan, ur-lasterretatik zeharkaturik zegoen.

Beren herrisketatik txerri asko, hegaztieskortak aske noraezean ibiltzen dira, aitzitik, inguruko muinoetan, larre asko daude bufalo-taldeentzat. Hauek bakarrik hazten dira beren haragia aprobetxatzeko, esnearen eta esnekien abagune nutritiboak mesprezatuz.

Kalinga askok beren nekazaritza eta abeltzaintzako ekintzak, edozein ogibideren praktikarekin osatzen dute: eltzegintza, errementaritza, ehungintza eta beste batzuk.

Herrixka batzuetako tresnak oso baliotsuak dira ez da bakarrik haien artean (beren behartasunak asetzeko), baita inguruko jendeen arteko behartasunak asetzeko ere: aizkorak, ganibetak, nekazaritza-tresnak, lantzak. Gainera kotoizko ehunak egiten dituzten Kalinga emakumeak beren oinarrizko tailerretan oso




preziatuak dira, arbolaren azal-zuntzak ere lan egiten dute, oso erabilgarriak dira tapakien eta jakatxoen manufakturetan.

Kalingen janzkera ohiko eta mendebaldeko elementuen arteko nahasketa da. Emakume gehienek oihalezko gonak, haiek beraiek egiten dituztela, janzten dituzte, baina ia-ia beti soina bilusia eramaten dute. Azken urteotan kotoizko blusak hedatzen ari dira, kolore- ikusgarrien marrazkiekin estanpatuak. Gizonek gerripekoak erabili ohi zituzten baina orain mendebaldeko arropak nahiago dituzte.

Iparraldeko muino aldapatsuetan nukleo bizidun txikiek etxeen kopuru txikia dute, 6 eta 30 bitarteko kopurua. Hegoaldeko







haran handietan populazioa 250 etxe arte eta mila pertsonen bat egon daiteke. Nahiz eta leku bakoitza bere berezitasun arkitektonikoak eduki, orokorrean eraikuntzek oinarrizko eredua jarraitzen dute. Etxe guztiak lurzorutik banatuak geratzen dira pal-do-multzoa erabiliz. Ate bakarra dute, eta hara heltzeko harrizko mailak edo eskueskailera erabiltzen da. Etxe gehienek gela karratua edo angeluzuzena dute hormekin izteko, banbu txirikordazko eginak edo taulazkoak landuz (eskuz).

### Gazteentzako askatasunaren marjina

Bi sexuen adoleszenteek askatasunaren marjina handia dute. Neskek herrixkaren alargunen etxeetan lo egiten dute eta mutilek etxe hutsetan. Naiz batak naiz besteak oso arraroa da gurasoen etxea gaua pasatzea. Ohitura hauek sexu bien kontaktuak erraztu ohi dituzte, izan ere sozialki onartuta dago gazte bat bere lagunarekin (neskarekin) gaua pasatzea, edo bikotearen ezkontza ospakisunarik gabe egitea. Dena den, batzuetan beste kasu bat gerta daiteke: gurasoek hitzarmen formala egitea, normalean umeak txikiak direnean egiten dute gurasoek, ondorengo batekin edo senar-emazte lagunekin. Ezkontzako hitzarmen honek oparien truke eskatzen du, eta gainera senargaiaren gurasoek ordainketa batzuk ere egin behar izango

# KALINGAK

dituzte. Hitzarmen hauen haustura sarritan ez da gertatzen, izan ere, bi familien arteko liskarrak, etengabe gerta litezke. Ezkontzaren jaiak, batzuetan oso lehiakorrak dira, haietan ahaideek beren etsaiak baino baliabide ekonomiko gehiago dituztela, adierazten saiatu ohi dute. Ezkontzaren eguna ailegatzean, ezkonberrien gurasoek familiako oinordetzaren zati bat ematen diete. Dotelegatu horiek ganaduak, tresnak, arrozsoroak eta artikulu beste mota batzuk izan daitezke. Artilulu hauek bikoteari beren etxea egiten utziko diote.

## Gizoneko poligamia

Kalinga ohituraren arabera, senarrek beste emakumerekin loturak egin ditzakete. Normalean hau egiteko, amorantearen gurasoek senarrari baimena eman behar diote. Batzuetan, gizonarik aberatsenek beren etxeen inguruan amorantearen etxea kokatzen dute, edo bere etxearen ondoan dagoen herrixka batean bizi daiteke amorantea. Legezkontrako seme-alabei aitaren oinordetzaren zati bat ematea oso normala da; baina bere legadu ez da bezain garrantzitsua bere legezko seme- alabak edukiko duten bezalakoa. Emakumea zahartzen hasi denean edo seme-alabarik ez duenak amorantea ondo onartzen du, batzuetan amoranteak etxeko lanetan eta nekazaritza eta abeltzaintzako lanetan parte hartzen du.



## Kalinga emakumearen papera

Kalinga emakumeak ez dira sexulagunak edo ekonomiarako lagunak izan ezik, izpirituen mundua eta gizakien arteko mediumak ere izan daitezke. Medium bezala, emakumeak erritual-ekintza batzuk egiten ditu, ia-ia beti gaixotasunak edo beste gaitz batzuk sendatzeko. Gaitzaren jatorria diagnostikatu ohi du, eta Jainkoekin edo Izpiritu gaiztoekin laguntzen da, horretarako txerribodak eta hegaztien sakrifizioak eskaintzen dizkie. Emakumea ez da mediuma aukeragatik, edo nahi







duelako, izan ere une zehatzean nabaritzen du deia gaixotasunak sendatzeko. Kalingek Goiko Jainko Sortzailearengan sinesten dute, nahiz eta berarekin zuzenki tratatu , aski da ahozko aipamenak botatzea, ez da beharrezkoa ofrenda edo sakrifiziorik egitea.

## Gizartearen lotura, aitaldeko taldea

Gizartearen batasunarik garrantzitsuena aitaldeko taldea da: aitaldeko eta amaldeko osabak, anai-arrebak, lehengusu propioak, eta haiek guztietako ondorengoak birbilobak arte. Pertsona hauen ezkontideak talde ahaidetuarekin geratzen dira. Talde honen kideek liskarra guztietan elkarri lagundu behar izango diete, haien heriotzagatik mendeku hartu behar dute, egindako gaitzak aintzakotzat hartu behar dituzte eta familiaren kontrako injuztiziak…..Ahaideek beti zeremoniarik ospetsuenetan parte hartzen dute: errito sendagarrietan edo hiletetan. Abagune hauetan taldeko kibe batzuei betebehar batzuk tokatzen zaizkie: janaria edo edaria emateko, horretarako familia osoaren artean diru-bilketa egiten dute.
Kalingek ez dute oinordetzako nagusirik, edo selektiborik. Gizon guztiek besteen begirunea eta begikotasuna irabaz ditzakete, estualdiak konponduz. Beste modu bat autoritateko kokapena lortzeko, ekintza oldakorrak eta erasotzaileak egitea, honela etsaien beldurra lortuko du eta ez da izango beharrezkoa beste larderia larriago erabiltzea. Herrixken artean pakea gordetzeko, tregoa adostasunaren arduradunak diren gizonen autoritatearen eta ospearen arabera izango da. Eskualde banatan

# KALINGAK



badago gizon bat, zeinek paktuak kontuan hartzen baitu eta beste aldeko etsaien kontrako liskarrak itoarazten baititu. Bere eginkizuna kideen arteko sendetasun artifizialean datza., izan ere, beren lurraldeetako paktuaren segurtasuna arduratzen dute. Konbentzionalismo honengatik uler eta onar daiteke alde bateko arduradunak beste bati zigortzea kalteak sortzeagatik (paktua egin ondoren). Hilketa bat denean, arduradunak, erruduna edo erredunaren familiako edonor hil dezake, baina sarritan, kalte-ordainketa eskatzera joaten da eta kitto, gero ordainketa hildakoaren ahaideei emango die. Baina liskarra oso odoltsuak saihesteko metodo bakarra da, bere lana egiterakoan krudelkeriaren baliabidea hartzea. Nahiz eta paktuen sistemak inguruko eskualdeen arteko harremanak baketu, Kalingen laguntzak ez du ezer ikusirik arrazoi bakezaleekin, komenientzia ekonomikoagatik baino. Nahiz eta mendebaldeko eragina egon, tribuaren ospea bere gerlarien indarrean datza. Gizonaren gizartearen estasusa igotzeko hilketa erabiltzen da. Pentsamolde hau gerlarien tatuajeetan ikus daiteke eta nola hartzen dituzten gizahiltzailearen eritziak (begirunez) bai herrixkaren batzordeetan bai eguneroko hizketan. Paradoxikoki, pertsona batzuk hil egin behar da beharrezko eragina lortzeko, Eskualde bateko zaindari edo pakezale bezala lan egiteko. Egoera hau bitxia izan daiteke, herri batean, mendearen erdian zehar, AEBko kolonia izan zela, honi gaineratu behar da, gero Ipar Amerikako sistema politikoa kalkatu egin zuela.







# JALEAK

***Ginea Berriko alde menditsuetan bizi den herri primitibo honen ustez, zeinek gizajaletasuna praktikatzen baitu, mendekatzeko ekintzarik handiena, etsaien gorputza jatea da.***






Ginea Berriko alde menditsuetan bizi diren Jale herrientzat (Baliem haraneko Ekialdean), gerla beren bizimoduan dago. Bere herrixka berberako kideen aurka, haran berberako herrixken kontra edo beste eskualdetako jenderekin aurka eraspenik gabe, borroka egiten dute. Etsaitasunak bizitza osoa iraun dezake, tregoazko denboraldiak tartekatuz, edo egun batetan soluzioa bila dezake.

# JALEAK

Antropofagia praktikatuz, haientzat, mendekatzeko ekintzarik handiena etsaien gorputza jatean datza. Antropologoek , kanibalismoaren fenomenoa azaltzen saiatuz, aurkitu dute, gizarteetan non mutilak beren amen menpean baitaude oso, eta non aiten paperik ez baitago, indarkeriaren maila oso altua dela. Beste ikerketa etnologiko batzuek adierazten dute, familiako talde txikiak badaude eta batasun politiko bezala





funtzionatzen badute, gerla, gizartearen beraren barruan, liskarrak konpontzeko oso erabilgarria dela. Bi deliberamendu Jaleei aplika dakizkie.

Kooperazio politikari dagokionez esan daiteke, beste herrisketako erasoak agertu arte ez dagoela. Horregatik faktor hauek oso nagusiak dira herri honen gerla-modua azaltzeko. Jaleek ez dute egiten gerlarik lurralde gehiago lortzeko edo sinesmen politikoekin bukatzeko, normalean hainbat irain mendekatzeko dira, adibidez, adulteriogatik edo lapurretagatik. Liskarraren iraupena bi taldeen arteko lehenengo elkartzearen emaitzaren eta herrixka etsaien arteko distantziaren arabera izango da. Portaera batailetan gerrillaren taktikan





datza. Berehalako inbasioa izaten denean, umeak eta emakumeak herrixkatik joaten dira, ahaideen edo lagunen herrixketara. Azken baliabide bezala, gerlariak *“Gizonen etxean”* babesten dira, leku hau magikoa denez, tabu batek erre egiten ez du uzten. Dena den, guda maila honetara ailegatzen bada, irabazleek herrixkaren beste zatia arpilatzen dute, gero erre egiteko. Gainera gerlaren egoera mantentzen da bi herrixkek elkar zeremonia bat egin arte: txerriboda eta erritual-janaria egin arte. Dena den, bi herrixken arteko negoziaketek urte batzuk iraun ditzakete, baina argi dagoena da, dantzen ospakizunek eta txerrien trukeak pakearen tratatua baieztatzen dutela. Haran berberako tribuen arteko liskarrak badira, arau bezala, kanibalismorik ez dute onartzen, izan ere Jaleek pentsatzen dute *“ezagutzen dituzten pertsonak jatea debekatuta dagoela”.* Dena den, mendikateatik banaturik dauden herrixken arteko batailak, antropofagia liskarraren zatia da.







### Herriska txikiak

Jale herrixkek tamaina aldakorra dute, 12-100 etxolen arteko kopurua da. Herrixka harresi zirkular batez, enborrez eginda, inguratua dago. Herrixka guzti hauek bi edo auzo gehiago dute, haietan gizonentzako etxe bat dago eta bere inguruan familiako etxolak daude. Familiako etxolan ezkon-

# JALEAK



duta dagoen emakumearentzat da, baita bere neska ezkongabeentzat eta iniziaturik ez dauden semeentzat ere. Senar-emazte poligamoetan, emazte guztiek etxola bera parteka dezakete, baina normalean bakoitzak berea du. Gizonentzako etxea "Etxe Sakratua" da, hemen iniziaturik dauden gizon guztiak bizi dira. Errito guztiak hemen gertatzen dira, eta tabutzat hartzen dute emekumeek eta iniziaturik ez dauden mutilak.

Gizarteen harremanetan, hastapena eta ezkontza prozesu osagarri bi dira. Neska bat ezkontzen denean, bere etxea uzten du beren senarraren ahaideen etxera joateko. Beste aldetik mutilaren hastapenak esan nahi du, gizonentzako etxean sar daitekeela, eta bere leinuaren kidea dela.

Urrats hauek guztiak, sinbolikoki, txerrien trukeari esker, adierazten dira. Alde honetako etxeko animalia bakarrak txerriak eta txakurrak dira. Honela, ezkontzeko zorian dagoen gizonak, bere emaztegaiaren ahaideen aurrean txerri bat eraman behar du bere ezkontza ospatzeko, eta iniziatuta dagoen mutilaren ahaideek amaren ahaideei txerri bat eskainiko diete leinura gehitzeko.

Pubertaroan sexu-harremanak edukitzea debekatuta dago. Ia-ia neska guztiak oso goiz ezkontzen dira. Sexu-harremanak ezkonduta dagoen emakumearekin, zigortuta dago. Ezkontza baino lehen sexu-harremanak edukitzea oso zaila da. Gainera emakumea haurdun dagoenean, gizonak ez du lo egiten familiako etxolan eta tabu bateaan sartzen da: umea jaiotetik lau urte pasa arte ez da berriro bere emaztearengana hurbilduko.





# MBOTGOTEAK

***Mbotgoteak, Hegoaldeko irlan, herrixka batzuetan eta hiru herritan banatzen dira.***
***Herri banak bere gizonentzako etxea du. Familiako etxeek teilatu oso makurrak dituzte. Hauek egiteko, palmondozko hostoak erabiltzen eta egurrezko armazoiaren gainean kokatzen dituzte; gero indarra emateko, iratzeen sustraiak eta palmondozko adarrak jartzen dizkiete, zikloitean batez ere.***






Mbotgoteak, Hegoaldeko irlan, herrixka batzuetan eta hiru herritan banatzen dira.

Herri banak bere gizonentzako etxea du Familiako etxeek teilatu oso makurrak dituzte. Hauek egiteko, palmondozko hostoak erabiltzen eta egurrezko armazoiaren gainean kokatzen dituzte; gero indarra emateko, iratzeen sustraiak eta palmondozko adarrak jartzen dizkiete, zikloitean batez ere.

Etxolek itxura nahiko berezia dute: aurrekaldea eta atzekaldea borobilak dira, eta azken hau txerrientzat da. Animalia hauek, herri honen bizitzaren barruan,

# MBOTGOTEAK

oso bereziak dira, alde batetik jateko eta beste aldetik bere gizartearen hierarkiaren seinalea emateko.
Mbotgoteentzat, landare-jakien iturri berezia "*Taro*" delakoa da. Hau fekulazko tuberkulua da, ñamearen ondoan eta beste batzuen ondoan landatzen da. Txerri basatiek eta etxetiarrek bere ortuak arpilatzen saihesteko, hesi hauskaitzez inguratzen dituzte.
"*Taro*"a, atari zabalean, sutzar baten gainean errea jaten da. Haragia ordea, egosia izan ohi da edo "*laprat*" modukoa prestatua, plater hau "Taro"zko pasta batean eta ñamean datza, gero honi haragia eta barazki batzuk, (espinaken antzekoak) botatzen dizkiote.
Makulako irla Koral itsasotik inguratuta



dagoenez, herri honek ere, sakonera txikiko uretan, arrantza egiten dute: aingirak eta ganbak. Batzuetan txerri basatiak, usoak, eta saguzarrak ehiztatzen dituzte.
Gizonen janzkera oso arrunta da: zakilaren inguruan bananazko hostoaren zati batekin, eta azalezko gerriko batekin lotuta. Emakumeek belarrezko gonak eramaten dituzte, aurreko aldea motza eta aitzitik, atzekoa luzea da. Nahiz eta herri honetako aspektua nahiko bakuna izan, bere gizartearen hierarkiko sistema, paradoxikoki, oso konplexua da, eta bere eraginak hiletetan errito oso konplexuak sortu ditu. Horrela, beren arbasoen izpirituenganako sinesmenak ez du jasan aldaketarik (nahiz eta europearrekin harremanak eduki). Mbotgoteentzak, arbaso hauengan konfidantzari esker, bizitza kontserbatzen da, eta emankortasuna eta izpirituen arteko kooperazioa, hileta bakoitzean dagoen erritoen eta zeremonien bidez lortzen da. Bere handitasuna eta seriotasuna, bizia zegoenean, Nimangi hierarkiaren barruan zuen estatusaren arabera , izango dira.

### Gizartea oso hierarkizatua

Nimangi gizartean, edozein gizonek errito batzuen bidez postuak igo ditzake, honekin gizarte-garrantzia eta ospea lortuko ditu. Ez dago benetako nagusirik,







Nimangi gizartearen zaharren eskuetan autoritatea dago, izan ere, goi-mailako daukatenak, haiek dira. Baina hau lortzeko, indibiduoak etxeko basurde nahikoak eduki behar dituzte. Txerri hauei goiko ebakortzak errotik atera dizkiete, behekoak makurtuak hazi ahal izateko. Letaginen luzerak animaliari balioa ematen dio, gainera emazteak erosteko balio dute.
Beste aldetik estatus ona lortzeko, gizonik garrantzitsuen laguntza eta baimena behar ditu, horretarako haien interesak bete behar ditu.
Nimangi gizartean emakumeek ere gizarteestatusa alde dezakete. Horretarako beren labore-lurren ondoan dauden basoko argietan, aldi baterako aterpeak egiten dituzte, izan ere zeremoniek egun batzuk diraute. Sarritan familiako emakume batzuek batera gizartearen maila berdina lortzen dute. Zeremonia hauen batean, emakume hauei eskuineko ebakortza kentzen diete. Errito mingarria denez, hamar egunen bat lehenago, emakume hauek ez dute lan egiten eta elikagai bigunak bakarrik jaten dituzte, hortzoiak biguntzeko. Ateratzeko ordua heltzean, lurzoruan ahoz gora etzan ohi dira, haginen artean egurrezko zati bat helduz. Gero klaneko gizon bat haien gainetik kokatzen da eta aterako izango den ebakortzaren gainean makila bat jartzen dio, gero harri batekin makilaren beste mutur batean astintzen du. Kolpe batzuk eman ondoren, ebakortza nahiko ahula dago atzamarrekin kentzeko. Odoljarioa mozteko, ebakortzaren zuloaren

# MBOTGOTEAK

barruan zenbait landaren sustrai berotuak (txingarretan), kokatzen dira.
Goi-mailako Nimangiek ospe handia emateaz gain, emakumeei hil ondoren hileta konplexuagoak edukitzen uzten diete. Zenbat eta konplexuagoa da hileta gero eta ohore handiagoak ematen dizkiote hildakoaren izpirituari.

## Hileta-errito konplexua

Mbotgoteentzat hileta-zeremoniak oso garrantzitsuak dira, hain dira garrantzitsuak ezen batzuetan, tribuko garrantzizko gizona bada urte osoa behar baitute ospatzeko. Bere bizitzan zuen mailak, prestakuntza ona eman zion beste mundurarako. Hil zenean zeremonia hasi zen: Bere gorpua garbitu ondoren, buztinez estalita izan zen.Gero suspentsorea eta azalezko gerriko berria jarri zizkioten, eta zerrietan eta estalkietan familiako etxola batera eramanda izan zen. Gero, etzanda, burua hormaren kontra eta oinak gelaren erdirantz kokaturik izan zen. Hau egin zuten bitartean, beste talde batek, hildakoaren inguruan ubidetxo bat zulatu zuten (15 cm-ko sakonera). Gizonak, gorpuaren inguruan zirkuluerdiz, eseri ziren, hasperen eginez gelditu gabe, baina mukiak kendu gabe, izan ere hau egitekotan, beren erritoetan adeigabetasun larria izango zen. Tropikoetan, gorpuak egun gutxietan puzten dira, eta umore fisiologikoak irteten hasten dira, orduan ubidetxoak bere funtzioa betetzeari ekiten zion. Gorpua hartu ondoren, hostoez estalita eta zerraldo batean kokaturik izan zen. Modu honetan hilabete osoa egon zen. Emeek janariak prestatzen zituzten, umeek jolasten zuten, eta guztiek gorpuaren gerizpean lo egiten zuten. Bizitzak ohikoa ematen zuen, baina ahotsaren tonua baxuagoa zen. Prestakuntzek behar zuten denbora osoan zehar, hara hurbiltzea debekatua zuten, han egoteko, eta zeremonian parte hartzeko eskubidea ordaindu ez zutenak, (txerri horztunekin). Bakarrik hiletaren eguna hara hurbil zitezkeen.
Guztien etxolan behar zuen denbora pasa ondoren, gorpua lur-eremura zeremonia egiteko eraman zuten. Horretarako egin zuten prozesioa, Zahar batengandik buru ibilita zeinek arku bat sei sokaz eraman baitzuen. Lau gizonek buztin gorriz margoturik, zerraldo bizkarrean eraman zuten. Segizioa, aldi batzuk, zeremonietako danborren ondotik igaro ziren, azkenean gorpua banbuzko kainabera altuekin egin zuten etxolan utzi zuten. Lurzorutik bederatzi metrora, paldorik altuena koroatuz, ahaide baten garezurrak eszena ikusten zuen. Kalean, usoz eta saguzarrez taila txikiak kokatzen zituzten, izan ere, Mbotgoteek pentsatzen dute halako tailek hildakoaren izpirituari, itsasoaren ur azpitik lekua atsedenaldi hartzeko lagunduko diotela.







Betiko paradixua, herri honetarako, hondoetan ez dagoela mendirik igotzeko, edo baratzerik landatzeko pentsatzen dute, baina ordea, hainbeste txerri badaude ezen etengabe dantza egin daitekeen Zeremonian parte hartzen duten kideek tailen aurrean gau osoa dantzatzen dute, horrela hildakoarekiko eta herriskako izpirituenkiko begirunea erakusten dute. Haiek pentsatzen dute, hileta on bat egitea izpirituek atsegin dutela, haiek hiletaren truke txerri asko ematen dizkiete. Iluntzean, gosea agertzen da eta gonbidatuek, hileta irauten duen egunetarako txerri batzuk hiltzen dituzte, jateko. Denboraldi honetan egurrezko taila bat egiten dute <Chambaramb>a, honek hiltzeko unean, hildakoaren aberastasuna eta bere gizartearen maila irudikatzen ditu. Eta hiletaetxolan kokatzen dute. Hileta-erritoaren azken fasea, gizonen (iratzez estalirik), prozesio luze batean datza, <Chambaramb> aren aurrean bukatzen dela. Hementxe partaide banari ñame bat (lorez apainduta) jaso ohi dio. Orduan berriro txerri asko hiltzen dituzte, partaideek eta ikustatzaile guztiek banketean parte hartzeko eta horrela erritoaren amaierara heltzeko.
Une hau ailegatzean, Mbotgoteak beren ohiko lanetara itzul daitezke, orain izpirituen babesa eta borontate ona kontatzeko seguru edukiz. Batzuetan, koprazko plantazioetarako lan egitera joaten dira, dirua lortzeko; modu honetan aizkorak eta aihotzak eros ditzaten. Dena den, herri honen kide gutxi dira zibilizazioagatik interesa sentitzen dutenak, eta nahiz eta Kristauteriari buruzko gaiak entzun, erlijio honetaz paso egiten dute.

# JARAWAK

***Andaman Irletako Artxipelagoa, Indiko Ozeanoaren bihotzean, Bengalako Golkoaren oso hurbila, Jarawa herriaren etxea da, haiei ere Asiako pigmeoak esaten zaie, izan ere bere tamaina txikia da. Herri honek, Harri-Arotik bere bizimodu aldagabea gordetzen du baita bere intimitatea ere.***



Jarawen populazioek 300 gizabanako osatzen dituzte, arrantzaz, ehizaz eta fruituen bilketaz bizi dira, izan ere nekazaritzari buruz ez dakite ezer, eta ez dakite nola egin behar duten sua, hau dela kausa beti beren sutzarrak pizturik daude eta kanpamenduak aldatzerakoan sutzarreko ilintiak eramaten dituzte.
Beren gorputzak, metro eta erdi tamaina duela, ez du ilerik. Bizi diren lekuaren klima onagatik ez dute behar ia-ia arroparik, horregatik erdi-larru gorritan ibiltzen dira. Bai gizonek bai emakumeek gerrikoaren antzeko bat jartzen dute kokoaren intxaurraren zuntzez eginda, honekin begiztak eta lokarriak egiten dituzte. Emakumeen orrazkerak diademaren antzeko bat eramaten dute, honek basoko baiak daramatza.
Antropologo batzuen ustez, Andaman Irleetan (Kalkutatik 1300 km ra) bizi diren Pigmeo beltzen herri primitibo honen jatorriak, Asiako hegoekialde osotik hedatu zen Pigmeoen populazioarengandik dator, dena den gaur egun hipotesirik onartuena da, haiek itsasoz Sumatra-tik hara etortzea.
Jarawak atzerritarrekin aurkakoak dira oso, izan ere, mendeetan zehar Txinako eta Malaysiako piratak haien atzetik ibiltzen ziren esklaboz hornitzeko. Tribu honen emakumeek eta gizonek izugarrizko gehiegikeriak jasaten zituztenez, azken hauek langile sexualetzat hartutak, izugarrizko gorrotoa atzerritarrei erakusten diete eta haien etsaitzat hartzen zituzten, zer esanik ez!. Honela, bazter hauetan hondoratzen zen edonor, hiltzeko arriskua zegoen, eta bere hezurrak kiskaltzeko prest zeuden, atzerritarraren izpiritu txarrak hondatzeko. Jarawei bakarrik bortxakeria ematen diete eta horixe! haiek gauza bera itzultzen dute.
Kolonizazio britaniarrak, 1858 urtean hasi zela, gauzak beren lekuan utzi zituen, Jarawen inguruan zegoen kondairaren zati bat kentzea lortu zuen, kondairaren arabera, herri hau odoltsua eta gizajalea zen. Hain zuzen, Mundutik isolaturik korronte arriskuagatik eta Montzoien izugarrizko euriagatik (Andaman Irletara ezin zen joaten maiatzatik azarora arte) Jarawak mende batzuetan zehar gizajaletzat hartutak ziren. Dena den kolonizazioak ezin zuen lortu bukatzea beren etsaitasunarekin. Aitzitik, atzeritarrekiko gorrotoa aurrerago joan zen, honi gaineratu behar diogu beren lurretan britaniarrek presondegi bat kokatu zutela eta zibilizazioaren txarrena beren irleetara ailegatu zela, bere gaitzekin: gaixotasunak, alkohola, eta deforestazioa. Gainera, Bigarren Mundu Gerran japoniarrek bonbardatu zieten, eta Indiako kolono berriak masiboki irleetara ailegatu ziren: Gehienak Bengalako ekialdeko errefuxiatuak (malaysiarrak, eta birmaniarrak) ziren, etengabe Andammaneko Artxipelagora joaten ziren. Oihana, beren etxe handia zela, pixkanaka-pixkanaka desagertzen hasi zen.1950 urte arte, Indiako gobernuak bizi ziren Jarawa lurraldea erreserba bihurtu zuen, South Andamaneko ekialdeko kostaldeetatik eta Middle Andamanetik hedatzen diren 265 km2. Baina ez zuen ezertarako balio. Dena den, Jarawek gaur-egungo munduaren erasoen kontra borroka egin behar dute.
Antropologoek ez dute beren hizkuntza ezagutzen, 1975 urtetik Indiako administrazioak Jarawen talde batzuekin harreman lagunkoiak hartu ditu, baina funtsean, tribu guztiek oso mesfidatiak izaten jarratzen dute. Ematen du, azken urte hauetan, areriotasuna gehitu dela, non gertakariak biderkatu bitira, Birmaniako kontrabandistekin, batez ere (etsairik txarrenak). Gizon hauek, Kalashnikovs errifleak eramanez, Jarawa lurraldean sartzen dira, itsas dortoken bila (oso baliogarriak dira bai beren haragiagatik bai beren oskolagatik) gainera erreserbatik zuhaitzak moztera joaten dira (egur baliosuagatik). Haiek badakite Jarawen geziak beren errifleen kontra ez direla kaltegarria.
Orain arte beren hizkuntzaren sekretua inor ez zen aurkitzeko gai, izan ere inor ez da haien artean bizi izaten. Antropologo batzuek (Radcliffe Brown eta Lidio Capriani eta Indian Antropological Survey-ko Indiako antropologoek bezala), irla hauetan bizi diren beste tribu beltzen ohiturak eta erabilpenak ikasi zituzten (Ongeak eta Andaman Handiak bezala), azken hauek zeharo analfabetoak dira.
Jakiten diren Jarawei buruzko gauzak gutxi dira: ehizaz, arrantzaz eta fruituen biltzez bizi izaten jarraitzen dutela.
Ongeek beraiek, Indiako administrazio espedizioetara joan direnean elkarri ez zioten ulertzen.

# AURKIBIDEA

**HERRI INDIGENEN ESKUBIDEEN GARAIPENA** . . . . . . . . . . . . 2
**Herri indigenen alde adierazpenak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 5
**Eztabaidagai Indigenetarako Nazio Batuetako Foro Iraunkor baten Eraikuntza** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 6

**DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ETNIAK** . . . . . . . . . . . . . . . . . . 8
**Herri indigenenei finkatzen zaizkien ororen elementuak** . . . . . . . . . . 8
**Afrikako kontinentea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 12

**IPAR AMERIKA:**
Inuita......14
Atapaskoa......14
Slabea......14
Siouxa......14
Stonia......15
Navajoa......15
Hopia......15
Apatxea......15
Indioak-herria......16
Tiwa......16
Cheyenne Delakoa......16
Komantxea......16
Kiowa......17
Seminola......17
**ERTAMERIKA:**
Lakandona......17
Tarahumara......17
Otomia......18
Totonakoa......18
Maia......18
Kuna......18
HEGO AMERIKA
Ketxua......19
Otobaloa......19
Jibaroa......19
Urua......19
Tarabukenoa......20
Nihamwoa......20
Janomamia......20
Kapaioa......20
Kamaiura......21
Txukarramea......21
Mekorontirea......21
Maka......21
**AFRIKA**
Bereberea......22
Dogona......22
Tuarega......22
Ashantia......22
Ioruba......23
Ougila......23
Fulbea......23
Nuba......23
Dinka......24
Afarra...... 24
Girama...... 24
Pokota...... 24
Masaia......25
Turkana......25
Karamojonga......25
Twa......25
Banbutia......26
Himba......26
Boskimanoa......26
Ndebelea......26
Zulia......27
**EUROPA**
Samia......27
**ASIA**
Tuwinea......27
Ainua......27
Amia......28
Barame Hugaroa......28
Igorota......28
Kalinga......28
Akha......29
Meoa......29
Iaoa......29
Padaung......29
Ibana......30

Punana....30
Jalia....30
Asmata....30
Gagila....31
Ponapea....31
Dania....31
Jaliba....31
Hulia....32
Melpa....32
Trobianda....32
Aborigena.... 32
Maoria....33
Una....33
Zoea....33
Awa....33

**KARIMOJONGOAK** . . . . **34-41**
7 tribu . . . . 38

**IGORROTEAK** . . . . **42-49**
Harreman handia berenn arbasoekin . . . . 44
Gorpuraren kontserbazioa . . . . 47

**AGTAK** . . . . **50-55**
Gizarteko antolomendua . . . . 52
Iraupenaren ekonomia . . . . 54
Agten erlijioa . . . . 54
Mehatxatxutako herri bat . . . . 55

**IATMULEAK** . . . . **56-61**
Gizartea gizonaren menpean dago . . . . 59
Eskultura ospetsuak . . . . 60

**KENYAK** . . . . **62-69**
Bizitza herrixka batean . . . . 65
Ezkontza eta ahaidetasuna . . . . 68

**JANOMAMIAK** . . . . **70-77**
Komunitate txikia eta autosufizienteak . . . . 72
Usadio gerrazalea . . . . 74
Etorkizun zalantzagarria . . . . 76



**BAUPEAK** . . . . **78-83**
Hizkuntzak, taldekoa izatea esan nahi du . . . . 79
Herri-etxea . . . . 80
Errito-zeremoniak . . . . 82

**HULAK** . . . . **84-89**
Naturarekin lotuta dagoen kultura . . . . 84
Desberdintzea sexuen arabera . . . . 86
Hulen unitate politikoak . . . . 87

**MELPAK** . . . . **90-95**

**PUNANAK** . . . . **96-101**
Ezkondu-harremanak . . . . 98
Errito-bizitza . . . . 100

**ASMATAK** . . . . **102-109**
“Yeu-a” 116 . . . . 103
Ezkontza eta familia . . . . 105

**TASADAY HERRIA** . . . . **110-113**

**KALINGAK** . . . . **114-118**
Gazteentzako askatasunaren marjina . . . . 116
Gizoneko poligamia . . . . 116
Kalinga emakumearen papera . . . . 116
Gizartearen lotura, aitaldeko taldea . . . . 117

**JALEAK** . . . . **119-122**
Herrixka txikiak . . . . 121

**MBOTGETEOAK** . . . . **123-127**
Gizartea oso hierakintzatua . . . . 124
Hileta-erritokonplexua . . . . 126

**JARAWAK** . . . . **128-129**

**AURKIBIDEA** . . . . **130-133**





Fernando Pedro Pérez, 60ko hamarkadaren hasieran Bilboko auzo batean jaioa -Zorrotzan-, txikitatik naturaren deiadarra sentitzen hasi zen..
Oso goiz bere zaletasun, grina bihurtuta, eta gero, bere bizitza ulertzeko modu bakarra, Zierbenako portu txikian hasi zen -Bilboko Abran-. Orduko Zorrotzako apaiza urpekari aurrendari gasteiztarraren eskutik -Fidel Korta- egin zuen, Fernandok.
Goizeko bederatzietan lehenengo meza ospatu ondoren, udako egun guztiak, eguzkiak bere izpiak ikusten uzten zituenean, Fidelek bere ardurapekoarekin- Fernando-, eta bere Seat 600 hartuz, itsasorantz abiatzen zen. Hantxe, Fernandok itsasoaren sekretuak aurkitzeari ekin zion: baxurako arrantzaleek zekartzaten arrainak ezagutuz eta portuko aldapa berberetan saretik arrainak nola kentzen zituzten ikusiz, krabarrokaren arantzen arriskuak jakiteari hasi zion, arraien mimetismoa, arrain launak, labridoen kolore ederrak, esaterako, dontzeila eta karraspio atlantikoa, itsas aingiraren jatuntasuna…
Geroago, urpean igeri egiten zuen -birikaz- ,urpeko mundu liluragarria ezagutuz.
Hazten zen neurrian, itsasoaren grina gehitu zen, eta berarentzat, itsasoari eta munduko animaliei buruzko argitalpen guztiak oparirik onenak ziren.
Goiz, Fernando eta bere lagunak alde hezeetako igelak eta tritonak begiratzera zihoazen baita sugandilak eta muskerrak harrapatzera ere. Bestetik, Kadagua ibaiak egiten zuen urmael batean -Zorrotzako bokaletik gertu- arranoei begiratzen zieten.
Pixkanaka-pixkanaka, izaki bizidunak gero eta interesgarriagoak iruditzen zitzaizkion
EHUren Informazio-Zientziaren ikasketak bukatu ondoren ,Kasetaritzaren bi adarretan eta Publizitatean litzentziatu zen, -, baita Zuzenbide-ikasketan ere -UNEDen bidez-
1.990. urtean, Fernandok, biologo-talde batekin, -Galtzorian dauden Espezieen Defentsarako Elkartea-, sortu zuen -ADEVE-.
Elkarte honen bidez, Fauna eta Flora-ikasketa asko egin ditu, gainera Zoologia eta Naturaren buruzko ehun liburu argitaratu ditu. Duela gutxi, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen sinatu zuen eta Fernandok,argitalpen guztiak Internet-etik hedatzea ez ezik, naturaren kultura ezagutaraztea ere du helburua. Izan ere, Fernandok bizitza osoa natura-ikasteari ekin dio buru-belarri.







*Liburu honek adierazi nahi ditu, alde batetik zeintzuk diren Munduko etniarik mehatxatuenak ez ezik, irakurle guztien sentsibilizazioa ere, eta bestetik, iritzi-korrontea sortu nahi du, kolonizazio kulturala geldiarazteko.*

A.D.E.V.E.